

PROIEKTUA: Foru dekretuaren proiektua, zeinak arautuko baitu Nafarroako Gobernuaren Bioetika Batzordea

a) Ekimenaren bidez zer arazo konpondu nahi diren

Gaur egun osasun-arretan erabiltzen diren aurrerapen zientifiko eta teknologiko anitz direla eta, eskakizun handiak daude ahalmen profesionalaren alorrean; izan ere, gero eta maizago erabaki zailak hartu behar dira, eta, hortaz, zalantza eta eztabaidak pizten dira: erabakiok giza duintasunari zor zaion printzipio etikoekin bat ote datozen edo haien aurkakoak ote diren.

Bioetikaren helburua orientabideak ematea da medikuntza-, biologia- eta osasun-zientzietako aurrerapen teknologikoak gizakiongan erabiltzen direnean, gizakion eskubide, balio eta printzipio moralak errespetatuz aplikatu daitezkeen. Osasun-jarduera orok giza duintasunaren aldekoa behar du izan: oinarrizko printzipio etikoa da hori erakundeentzat, herritarrei ematen zaien osasun-arretaren kalitatea hobetzeko ahalegintzen diren heinean.

Egoera zertan den ikusirik, beharrezkoa da erronka berri horiei erantzuteko tresna arautuko duen araudi-esparru bat izatea, orobat bermatuko duena giza eskubideak babestuko direla ikerketek gizakiei eragiten dietenean.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den

Esparru horietako edozeinetan, erantzun berriak behar dituzten galdera berriak sortzen ari dira; batzuetan, ez dira errazak eta hausnarketa behar dute. Hori profesionaleri, herritarrei eta erakundeei aplikatu dakieke.

c) Arauak zer helburu dituen

Arauaren helburua da Nafarroako Gobernuari eta hura osatzen duten departamentuei, komunitate zientifikoari eta osasun eta gizarte erakundeei, publiko zein pribatuei, aholku ematea medikuntzaren eta osasun-zientzien inplikazio etikoekin zerikusia duten gaietan, antolamendu juridikoaren mende erabat.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak)

Ez dago bestelako konponbiderik